



Baztango
Udala

Baztango Udalak Datue poligono gibelaldeko zabor isurketak eta ekintza desegokiak saihesteko intentziaz bertarako sarbidea herstea erabaki du

Azken urtean zehar zenbait herritarren aldetik emandako ekintza desegokiak eraman dute Baztango Udala halako erabakia hartzera

Lehenago ere Arizkungo Ordoki poligonoan gertatu zen bezala, oraingoan Elizondoko Datue poligonoko gibelaldeari tokatu zaio. Bertan zabor ezberdinak era sailkatuan biltzeko edukiontzia jarri zituen Baztango Udaleko Hondakin sailak eta herritar aunitzek puntua bera eta edukiontzi hauek partikularki behar den bezala erabiltzen bazituzten ere, geroz eta gehiago izan dira poligono gibeledoko gune hau edozein zabor mota eta nolana botatzeko baliatu izan dutenak.

Kaleko puntuetan aurki ditzakegun edukiontziez gain, gune honetan ETXEETAKO eta KOMERTZIOETAKO EGURREZKO HONDAKINAK eta KOMERTZIOETAKO FILM EDO ENBALAJE PLASTIKOA biltzeko edukiontzi haundiak aurki daitezke. Edukiontzi hauek ez dira industri edo aktibitate ekonomiko espezifikoetan sorturiko hondakinak kudeatzeko, hondakin hauen kudeaketa (eta ondorioz bere kostua) aktibitatearen titularri bait dagokio.

Azken aldian ikusi izan denez, edukiontzi haundi hauek alde batetik zenbait industri aktibitateek beren mesedetarako erabiltzea erabaki dute. Berdina gertatu da zenbait eraikuntza enpresa eta partikularrekin, hauetako batzuk ere Datue poligonoa baliatu bait dute edozein obra hondakin botatzeko. Ekintza desegoki hauek gune honen gainerako erabiltzaileen gain eta nabeen jabeen gain begibistako arazoak sortu dituelarik. Horrez gain, herritar batzuk ere, Udalak traste haundien bilketarako duen zerbitzua erabili beharrean, puntu hau baliatu dute beren etxeetako altzari, koltxoi, frigorifiko, komun eta gisakoak botatzeko.

Neurri ezberdinak hartuta ere arazoa geroz eta larriago bueltatzen ari zela ikusirik, zuzenki kalteturiko nabeen jabeekin solastu ondoren eta beraien iritzia kontutan izanik, zonaldea ibilgailu ez baimenduei hersteko erabakia hartu da. Behin sarrera hertsita gunearen garbiketa egin du Udalak.

Ondorioz, joan den astetik aitzin zonaldea ibilgailuei hertsita eta bideozaindua egonen da. Hemendik aitzin bertan zaborra bota ahal izateko oinez sartu beharko delarik.